

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Dantzari Egun
arrakastatsua /8

ASTE SANTUA

Eskoriatzar ugari
Arantzazun /9

LEINTZ GATZAGA

Hauteskundeetarako
hautagairik ez /10



ASTE SANTUA

0toitza eta isiltasuna nagusi lau eguneko ospakizunetan

MUS TXAPELKETA: IBAI-GAIN ELKARTEKOAK NAGUSI/5 • KIROLA: ERRASTI ANAIK TXAPELDUNORDE/6

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKO FARMAZIA

APIRILAK 14-20
ITURRALDE. Mitarte 18... 943 79 27 22

APIRILAK 21-27
FRAILE, J. Herriko Plaza 10... 943 79 21 99

OHARRAK

KZGUNEA ASTELEHENETAN BAKARRIK ZABALIK

Hemendik eta maiatzera bitartean astelehenetan bakarrik zabalduko dute KZGunea, ikastaroetan parte hartu gura dutenek izena eman dezaten. Horren arrazoia da Telefonicarekin arazoak dituztela.

LIBURUTEGIA, ITXITA

Udal Liburutegia itxita egongo da apirilaren 17tik 27ra bitartean.

'CHI KUNG' IKASTAROA

Garapen pertsonala eta terapeutikoa lantzen dituen *Chi Kung* ikastaroa antolatu du Sadhana zentroak. Maiatzaren 5etik 30era, astelehenetan eta egubakotzetan, 20:00etan. Informazioa, 943 71 41 91 telefonon.

ORAINDELA 44 URTE ARETXABALETAN

Omenaldia egin zioten Gregorio Gabilondori

Urte askoan sakristau izandako Gregorio Gabilondo Amilbururi omenaldi beroa egin zioten 1959ko apirilean Aretxabaletako Udalak eta herritarrek. Leintz Gatzagan jaiotakoa, Aozaratzan maisu izan zen, eta barberu eta dendari lanak egin zituen sakristau izan aurretik.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Garitxua"

Garatxoa.
—Garitxuak kentzeko piku-esnia ei da onena.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Eztitxu eta Ozpin inspektorea'

Eztitxu bere asto, gurdi eta ipuinekin alde batetik bestera ibiltzen zen. Egun batez astoa zaharra zelako eta bera nekatuta zegoelako hiriko etxetxo batera aldatu zen bizitzera. Lehenengo egunean inork ez zion jaramonik egin eta zerbait egin behar zuela erabaki zuen. Jarri



EZTITXU ETA OZPIN INSPEKTOREA

Marisa Núñez
Kalandrak, 2001
44 orrialde

zituen bere gurdi zaharrea gozokiak eta txokolata eta jendea irabazten hasi zen. Berehala inguratu zen jende mordo; orduan Ozpin inspektorea agertu eta jendea batzea debekatu zuen. Eztitxuk lortuko du, ordea, inspektoreak gehiago ezer ez debekatzeko. Lehen irakurleendako ipuin ederra da hau, eta txikiagoei kontatzeko oso aproposa.

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA


ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Uxue Balantzategi
3an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Iban Cabero
8an. Berandu bada ere, zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Xubane Garai
12an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Aintzane Aizpurua
15ean. Zorionak eta muxu handi bat, tia Aintzane! Loba guztien partetik.



ARETXABALETA
Josu Idigoras
18an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Amagoia Lasagabaster
19an. Ez egin hainbeste lan eta lankideak gonbidatu. Zorionak, martxosa!



ARETXABALETA
Endika de Tena
20an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Elene Errasti
20an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Iratxe Benitez
20an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Daniel Sarasua
21ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Elene Carrillo
26an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA
Beñat Arrieta
26an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagun partetik.




ESKORIATZA
Ander Zubia
27an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.




ESKORIATZA
Itxaso Eraña
27an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Jon Zubia
28an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta Endikaren partetik.



ESKORIATZA
Pablo Berebizar
29an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Matikua jatetxea

Azataz auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



LURRINDEGIA OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA



EGYNEKO MENVIK OTARTEKOK ETX PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Aste Santuen kanpotar bat herrire etorriko balitz, ze erakutsiko zeuskio?



BEGO ITURRICASTILLO
Langillie



ISABEL OLIVENZA
Langillie



IÑAKI IBARRONDO
Langillie



M^a KARMEN URIBETXEARRIA
Langillie



ANGEL MARTÍNEZ
Langillie



LUIS VELASCO
Jubilau

Hamengo inguruek, mendixek, Urkulu... Horreik. Bazkaitteko be leku ederrak dauz. Eguraldixe, barrez, ez da oso ona, baiñe batzuei gustetan jakue holako denporie be.

Urkulu, batez be. Kanpotarrei esangu neuskie herri hau oso lasaixe dala. Gaztie, adibidez, ez nittuke hona inbitauko. Horreindako ez dago ezer be Aretxabaletan.

Mendialdie, batez be. Degurix, Kurtzebarri, eta, zela ez, derrigorrien baitta Urkulu be. Gero, juergan egitteko arratsalde parteko txikiteue egitteko esango neuskie kanpotarrei.

Urkulu, duda barik. Bestela, herri barruen ezer gutxi daukogu erakusteko. Kanpotarrek eurek be esaten daue Aretxabaletako parajerik polittenak herriitik kanpora dauzela.

Urkulure, horixe da-eta hamengo leku polittena. Eta herrixen bertan be badauz pasialeku polittek. Horretaz aparte, txikiteue egitteko eta ondo bazkaitteko aukera daukie kanpotarrek.

Dana da politte. Mendire eta Urkulure eruengo nittuke turistak. Herrixen, barrez, ilargi plazie eta udaletxie oso leku edarrak die. Lasailasai pasiotxue emuteko lekuek be badauz.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ESPALOI ESTUEI Autoak pasatzeko bideak gero eta handiagoak egiten dituzte, eta horrek, batzuetan, oinezkoendako espaloiak estutzen ditu. Hainbat herritar, behintzat, kexu dira Mitarte kalean dagoen espaloiaz. Justu-justu lagun bi kabitzen dira, eta hiru-garrena etorri gero, batek bidera irten behar izaten du. Arriskuak ekiditeko egokia izango litzateke espalo hori zabaltzea. /A.L

ETABARRUAN...

'EGUNKARIA' /04

ASTE SANTUA /05

KIROLAK /06

Batzordea opor osterako

Egunkariaren aldeko batzordea opor ostean batuko da berriro maiatzean lanean jarraitzeko.

Elizkizun ugari egunotan

Bihar eguna hasiko da Aste Santua, eta lau egunetan elizkizun ugari izango dituzte fededunek.

Errasti anaiak txapeldunorde

Egubakoitzean jokatu zuten Bergaran Udaberri Torneoko finala Azkoitia-rran kontra.

ASTEKODATUA

24

ATZEGIZALE EGIN DITUZTE ORAINGO KANPAINAN

Aretxabaletako Atzeratuen Elkarteak (Aratz) Atzegizale izateko egindako azken kanpainen 24 kide egin zituen. Esan beharra dago aurretik 35 Atzegizale zeudela Aretxabaletan.

BESTEKEESANA

“ Joseba Sarrionaindiak, bost idazleak agertzen diren azken liburu horretan, aipatzen zuen

biolentzia politikoa katastrofe bat dela. Ez dakit atzetik “baina” bat jartzen zion. Nik beti pentsatu dut katastrofe baten atzean “baina” jartzea dela katastroferik handiena. Ikuspegi humano, etiko eta politikotik begiratuta, bai estrategia aldetik eta bai zabaltzen duen pedagogiatik begiratuta katastrofe bat da.

Aldi berean, ezker abertzalearen kultura politiko honen inguruan sortu den emankortasuna eta berari darion borroka armatua dira herri honetako gauzarik mirengarriena. Gaitasun eta eskuzabaltasun itzela dago, gaitasun politiko ukazina dago.

JON SARASUA
'Argia' /03-04-06

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Zertarako saio berri bat?

Aurreko egunean nire eskuetara eskari-eskutitz xeble bat iritsi zitzaidan. Telebistan, dirudienez, laster eskainiko duten programa baten berri emanaz batera, eskaera bat egiten zuten. Ez naiz gurasoa, baina heziketa munduan nabil, txikiekin heziketa mailan urratsak eman nahian, eta aitortu behar dut eskutitza irakurri ondoren kezkatuta gelditu nintzela. Eta proiektu honen baliagarritasuna azpimarratu nahiez, edota guraso eta hezitzaileon bihotzak/kontzientziak mugitu nahiez honela zion: "Holandan, Ingalaterran eta Europako hainbat lekutan jada ezagutzen da 'Baby Sitter' deitzen den saioa da eta audientzia eta ospe handia lortu du". Zertan datza? Pertsonaia ezagun bat (aktore, aurkezlea, kirolaria, e.a.) egongo litzateke umeekin batera etxean eta kamera bidez ume eta pertsonaia horren jarraipena grabatuko litzateke. Gaur egun hain modan dauden

programa horien antzekoa baina etxeko, gure gizarteko txikienei "egokitua". Noraino goaz? Eta gero hor gabilta gure hezkuntzaren kalitatea aztertzen, gure hezkuntza-proiektuak baloreetan oinarritzen, e.a

Dirudienez, gaur egun norbait eta zerbait izateko horrelako saiotan agertu behar da eta denbora gutxian eta gehiegi nekatu gabe, erraz-erraz, ospetsuak izatea iritsi, adinak kontutan eduki gabe. Zentzurik gabeko lasterketa batetan sartuta gaude. Arriskutsua, gainera. Eta pena ematen dit gurasoak, hezitzaileok, gure telebista... joko pobre horri leku ematea.

Ez ari ote gara pertsona erretzen? Zer da inportanteena bizitza honetan: pertsona izatea ala pertsonai ospetsua izatera iritsi? Biolentzia, zoritxarrez, ez da bakarrik gerra, gatazka, hilketak, bonbak... Hori ere bai, noski, baina biolentzia da baita ere haurrari haurra izaten ez uztea, gizakiari gizaki izaten ez uztea eta manipulatua izatea.

“Gaur egun hain modan dauden programa horien antzekoa da, baina gure gizarteko txikienei egokitutakoa”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

IRAKURLEAREN TXOKOA

ABERRI EGUNIK EZ!

Lasai, Aznarrek ez du eta (oraingo) debekatu. Baina egun horretan, Aretxabaletan ez da egongo azken 3 urteotan burutu den ekitaldi bateraturik, eta antolaketa ibilitakook, hutsune honen inguruko azalpenen bat beharrezkoa dela uste dugu.

Esan beharra dago erabakia pena handiz hartu dugula, lan horretan jarrita geneukan ilusioa bezain handia. Orain 3 urte, lehenengo aldiz antolatua genuenean talde polita elkartu ginen, baina jende kopuru hori urtez urte gutxitzen joan da, eta aurten ezinezkoa gertatu zaigu. Hala ere, inork ez dezala pentsa etsiko dugunik. Ez dugu agurrik esan, datoren urtera arte baizik.

Ideologia ezberdineko aberzaleak, egun batez bederen, batzea posible dela erakutsi dugu, eta ez gaude kapital hau hain erraz galtzen uzteko gertu. Eten hau hausnarketarako eta indar berriak biltzeko aprobetxatuko dugu. Askok botako dute faltan ospakizuna. Horrela bada, ea datorren urtean horietako batzuk hurbiltzen zaizkigun laguntzeko.

Bukatzeko, beste deialdi bat. Zaudeten tokian zaudetela, domekan abertzaleok gogoratu Aberri Egunaz, eta errebindikazioa eta ospakizuna uztertuz, pasa ezazue ahalik eta ondoen. Eta ez ahaztu zuen leioetan ikurrina jartzeaz.

Aberri Egun Bateratua batzordea

'EGUNKARIA' / Jende asko harpidetu da azken hilean

'Egunkaria'-ren aldeko batzordeak oporren ostean jarraituko du lanean

MIRARI ALTUBE

Otsailaren bukaeran sortu zuten *Egunkaria*-ri laguntzeko batzordea herrian. Hiru talde egin zituzten: harpidetzak lortzeko, bestelako diru bilketak egiteko eta komunikazioz eta mobilizazioz arduratzeko taldeak. Hilabete eta erdi pasatu da, eta, hasierako indarra eta gogoa jaisten joan diren arren, taldeek lanean jarraitzen dute. Horren adibide dira joan den astean *Egunero* jasotzen hasi ziren 45 harpidedunak.

Joan den astean hasi ziren jasotzen *Egunero* harpidedun berriak. Lehen 25 lagunek hartzen zuten *Egunkaria* eta orain 70ek *Egunero*. Harpidedun ez diren erole ugari ditu, gainera *Egunero*-k.

Loramendi EEn, bestalde, kamisetak salgai daude oraindik, bai umeendako, bai nagusiendako. Komunikazioz eta mobilizazioz arduratzen den taldeak, ostera, ikastetxeetako ume eta gaztetxoekin egin daitezkeen ekintzak bultzatuko ditu datorren hilean: jolasak, kantuak,

marrazkiak... Guztiok izan dezagun *Egunkaria*-ren berri.

ASTE SANTU OSTEAN BESTE DEIALDI BAT Indarrak berreskuratu eta lanean jarraitzeko asmoarekin, Aste Santu ostean beste deialdi bat egingo diote antolatzaileek *Egunkaria*-ri laguntzeko batzordeari. Maiatzaren 17an, gainera, Euskararen Eguna ospatuko da, eta jaieguna aprobetxatu gura dute, batzordekideek *Egunkaria*-ren arazoaren berri eman eta atxikimenduak lortzeko.

LABUR

Egunotan ibili den haize zakarrak kalteak egin ditu

Lehen ere ibili zen haize zakarra eta kalte ugari egin zituen. Bada, ostera bueltatu zaigu egunotan. Oraingoan ere arrastoa utzi zuten domeka gauean ibilitako haize bolada zakarrek. Herrian, esate baterako, lorontziak airean ibili zituen, dendetako toloak apurtuta zeuden astelehen goizean, eta auzune batzuetan argindar barik egon ziren. Inguruko auzoetan ere igarri zuten haizeak indar handia zekarrela: besteak beste, Urkulura bidean eta Izurietan zuhaitzak bota zituen.



Xabier Sarasua aurkeztu zuen Aralarrek


Egubakoitzean, hilaren 11n, aurkeztu zuen Aretxabaleko Aralarrek datozen udal hauteskundeetarako zerrendaburua, Xabier Sarasua, hain zuzen ere. Prentsurrekoan egin zuten Aralar taldeko kideek aurkezpena, baina ez zuten zerrendaren berririk eman. Bestalde, datorren astelehenean, apirilaren 21ean, bukatuko da maiatzeko hauteskundeetara aurkezteko izena emateko epea. /M.A.

Zubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE



Hirusta
Zatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

IOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

OPEL

Vectra GTS berria:
Zeharo asebeteko zaituen
mundu berria zure esku

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Garaje Nortean autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera,
eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



ERLIJIOA/ Aurten ere Izurietara gurutze-bidea egingo dute Egubakoitz Santu goizean

Bihar hasiko dira Aste Santuko elizkizunak

MIRARI ALTUBE

Zapatuan Arantzazura egin zuten erromesaldiarekin eta Erramu-domekako elizkizunarekin eman zieten hasiera Aste Santuko ospakizunei eliztarrek. Bihar, Eguen Santua, hasi eta domekara bitartean otoitz egiteko tarte ugari izango dituzte gura duten herritarrek.

Bihar hasiko da Aste Santua. Asko kanpora joango dira oportetan, baina batzuk herrian gertuko dira, antolatutako elizkizunetan parte hartu eta otoitz egiteko asmoarekin.

IZURIETARA GURUTZE-BIDEA

Eguen Santuko ospakizunekin hasiko da Aste Santua. Goizean, parrokiari, bakarkako aitortzak egiteko aukera izango dute; eta arratsaldean Jaunaren Azken Afariko ospakizunak egongo dira, 18:00etan Agustindarren monasterioan eta 19:00etan Andre Mariaren Zeruratze parrokiari.

Egubakoitz Santuan, berriz, gurutze-bidea egingo dute, 11:00etan, parrokiatik Izurietara auzora. Iaz arte Aretxabaletako parrokoa izan zen Antonio Astigarragak jarri zuen abian ekimen hori orain dela zazpi urte, eta aurten ere hura etorriko da. Arratsaldean Jaunaren Nekaldiko ospakizunak egongo dira, 16:00etan monasterioan eta 17:30ean parrokiari.

Zapatu Santuko ospakizun garrantzitsuena Pazko Gaubeila



Eguraldiak laguntzen badu Izurietara gurutze-bidea egingo dute, urtero moduan.

izango da. 21:00etan egingo dute bai monasterioan, bai parrokiari. Azken horretan, gainera, umeak bataiatuko dituzte. Bukatzeko, Pazko Domekako eukaristiak ohiko orduetan egingo dituzte.

Otoitza eta isiltasuna izango dira nagusi Jesusen heriotza eta

piztuera gogoratzerakoan. Horregatik, ospakizun horiez guztiez gain, otoitzerako une bereziak gertatuko dituzte agustindar mojek egubakoitz eta zapatu goizerako. Herritarrek badute non aukeratu otoitzaren gaineko Aste Santua bizi gura izanez gero.

TXUTXUMUTXUA



Ibai-Gain nagusi Mus Txapelketan

Zapatuan jokatu zuten Elkarte Arteko Mus Txapelketa Eguzki-Alde elkartean. Herriko sei elkartetako bikote onenak elkartu ziren bertan, eta 18:00etan hasi eta gauerdia bitartean jo eta su ibili ziren musean. Afaltzeko tarte egin zuten, eta partida erabakigarriak afalostean jokatu zituzten. Txapelkunak Ibai-Gain elkartekoak izan ziren: Javier eta Cubala. Bigarren, berriz, Eguzki-Aldekoak bertakoak izan ziren: Emilio Garro eta Damaso Uribealzo, hain zuzen ere. /M.A.

LABUR

Egubakoitzean zabaldu zuten gazte-lekua, eta gazte ugari hurreratu ziren aste bukaeran

Egubakoitzean, hilaren 11n, zabaldu zuen Udalak Poxpolin Gazte gazte-lekua. Ludoteka egon zen lokalean jarri dute, eta Nerea Elorza da bertako begirale. Aste bukaeran 12 eta 16 urte arteko gazte ugari hurreratu ziren lokala ezagutu eta zer-nolako giroa zegoen ikustera. Aste Santuko jaiegunetan itxita egongo da gazte-lekua, eta maiatzean zabalduko du berriro Nereak.



Herriko plaza 2/g ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91

605 71 66 92 / 629 47 72 70

Jou Díaz
Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28



ORAIN...
SOLARIUM
BERTIKALA

Kixkur
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

IRIARTE

Umeen
denda
Helduen
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ANA'S
jantxidenda

Iparragirre 4.
Aretxabaleta

PILOTA

Errasti anaiak txapelkunorde Udaberriko Pilota Torneoan

Azkoitiaren aurka jokatu zuten finala eta tanto bakarragatik galdu zuten (22-21)


AMAGOIA LASAGABASTER

Ibonek eta Unaik joan den egubakoitzean, hilaren 11n, jokatu zuten Bergarako Udal Pilotalekuan Udaberriko Pilota Torneoko finaleko partidua, Azkoitiaren aurka. Bikote biek partidu gogorra jokatu zuten. Azkenean, baina, azkoitiarrak nagusitu ziren (22-21).

Norgehiagoka jokatu aurretik Errasti anaiek bazekiten partidua oso parekatua izango zela. Aurretik ere neurtuak zituzten indarrak azkoitiarrekin, eta ez zegoen esaterik nork irabaziko zuen. Azkenean, tanto bakarreko aldearekin azkoitiarrak eraman zuten Udaberriko Pilota Torneoko txapela.

PARTIDU LUZEA

Partidu hasieran Errasti anaiek erraz hartu zuten aurre. 14 tanto egin arte nagusi izan ziren. Gero, baina, huts batzuk egiten hasi ziren. Azkoitiarrak, berriz, sakez ederto egin zituzten euren tantoak. Hamazortzigarren tantoan berdinduta egon ziren, baita hogeita batgarrenean ere. Azkeneko tantoa, baina, azkoitiarrak



Orain Debarroko Txapelketan lan txukuna egin gura dute Errasti anaiek.

egin zuten eta hola amaitu zen norgehiagoka.

Edozelan ere, Ibon eta Unai pozik daude egindako lanarekin eta txapelketako finalera heltzarekin hasieran jarritako helburuak bete dituztela esan digute.

DEBARROKO TXAPELKETA

Orain Debarroko Txapelketan jarriko dituzte indarra guztiak. Orain arte oso partidu gutxi galdu dituzte, eta ziur daude finalera ez bada ere finalaurrekora erraz iritsiko direla.

TXUTXUMUTXUA



Urdinak eta horiak nagusi Olinpiar Jokoetan

Joan den astean amaitu zituzten Kurtzebarri Eskolan Olinpiar Jokoak. Aurten, hiru hilabetez, eguenero ibili dira jo eta su txapelketak egiten. Azkenean, baina, batzuk bakarrik gelditu dira lehenengo podiumean. Lehenengo eta bigarren zikloan urdinez jantzitako taldekoak izan ziren irabazle; eta, hirugarren zikloan, berriz, horiak izan ziren nagusi. /A.L.

FUTBOLA

Preferente mailako UDA taldeak ezin izan zion Tolosari irabazi (1-2)

Joan den domekan, hilaren 13an, UDAko preferente taldeak etxean jokatu zuen, Tolosaren aurka. UDAkoak aurretik ibili zen ia partidu osoan, baina azkeneko minutuetan Tolosak gol bi sartu eta UDAkoek galdu egin zuten (1-2). Edozelan ere, Bittor Muxikaren mutilek erdialdeko postuei gogor eusten diete, eta orain bederatzigarren daude sailkapenean, 45 punturekin.

Erregionaleko bigarren mailakoek, bestalde, mailaz igotzeko faseko laugarren norgehiagoka jokatu zuten domekan, hilaren 13an. Martuteneko taldearen aurka neurtu zituzten indarrak, eta UDAkoek galdu egin zuten (0-3).

AZKENEAN, EGUNAK LUZEAGOAK DIRA APROBETXA EZAZU 2003KO UDABERRIA-UDA



Lineako patinak, **TOPIC NOISY**, Softboot
LEHEN: 99,95 €
ORAIN: **69,95 €**



Motxila, **REEBOK**, New Logo Eclipse
LEHEN: 32,95 €
ORAIN: **22,95 €**



pultsometroa, **POLAR**, A3
LEHEN: 89,95 €
ORAIN: **75,95 €**

SPORTLAND
FORUM SHOPS

Zatoz zure Sportland dendara, Garibai Etorbidea, 2-6 Arrasate

ERRETRATUZAHARRA

Orain dela 30 urte ere txistulariek iratzartzen zituzten herritarrak jaietan

Jaiegunetan, hau da, Andramai-xetan, Aratuste-domekan... txistulariek iratzartu ohi gaituzte txistu doinuekin. Ohitura aspalditik dator, eta orain dela 30 urte ere halaxe ibiltzen zen Aretxabaletako Txistu Taldea. Erretratuan ikusi besterik ez dago Otalora kaletik gora zelan doazen txistulariak. Atzetik aurrera, eta ezkerretik hasita, honakoak daude: Tomas Gerra, Demetrio Iriarte, Aitor Antxia Leturia, Ramon Barrutia, Arantza Bengoa eta Jabier Igartua. Taldea osatzen zuten beste bi falta dira: Joxe Makazaga eta Lore Leanizbarrutia.

Herriko jaietan jotzeaz gain kanpora ere joaten ziren garai hartan, batez ere, beste herri batzuetako jaiak alaitzera eta ume dantzarien egunetan laguntzera, baina kontzertuak ere ematen zituzten. Hala ere, ez zen dena lana izaten, bazekiten ondo pasatzen. Jabier Igartuak gogoan dauka San Fermin jaietan Iruñera egin zuten txangoa. Ez ziren txistua jotzera joan, jaietan parte hartzera baizik, eta taldeko neska-mutikoak, oraindik

gaztetxoak izanik, gurasoekin joan ziren: "Ederto pasatu genuen, San Fermin jaiak ikusi, txistu kontzertua entzun, eta buelta etxera. Litri eta Bernabe ere gurekin etorri ziren, beti egoten ziren-eta laguntzeko gertu. Autobusa errentan hartu genuen, eta etxera bueltan umore giro ederrean etorri ginen, kantuan... Autobus gidariari, ostera, ez zitzaion batere gustatu gure jarrera, eta hobeto portatu ezean autobusa gelditu eta ez zuela aurrera egingo esan zigun. Orduan Tomas Gerrak jaisteko erantzun zion, berak eroango zuela autobusa. Isil-isilik jarraitu zuen gidariak Aretxabaletara heldu arte".

Demetrio Iriarte eta Tomas Gerra irakasle zituztela talde polita osatu zuten erretratuko neska-mutikoek. Nagusitu ahala, ostera, taldea uzten hasi ziren, eta sei edo zortzi urte ibili ostean Aretxabaletako Txistu Taldea uztea erabaki zuten batzuek; Jabier Igartuak, besteak beste.

Informazioa: Jabier Igartua



ZARAIA

taberna

BERRIZ ZABALIK

Goizeko 05:30etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguaztena / 2003ko apirilaren 16a / 122. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Dantzari Egunean herritar asko eta giro ezin hobea egon ziren Eskoriatzan

AINTZANE GARDOKI

Aspaldiko partez, joan den domekan Eskoriatzak ibarreko 170 dantzari eta txistulari hartu zituen Dantzari Egunean. Giro polita eta herritar asko egon ziren dantzariak eskaini zituzten dantzak ikusten. Datorren urteari begira, gainera, umeen dantza taldea sortuko dute.

Orain dela 7 urte egin zuten azkeneko Dantzarien Eguna Eskoriatzan. Urtero ibarreko herri batek hartzen du egun hori antolatzeko ardura: "Badira lauzpabost urte herriko Gorosarri dantza taldea desagertu zela, baina nahiz eta talderik ez izan, atsegin handiz hartu genuen Dantzari Eguna antolatzeko eskaintza", esan digu Udaleko Euskara eta Hezkuntza zinegotzi Mainer Otamendik.

IBAR OSOTIK ETORRITAKO DANTZARIAK

Arrasateko Arrostitz eta Lore Gazteak, Oñatiko Oñatz, Antzuolako Oinarin eta Bergarako Xamatx dantzari taldeak izan ziren herrian, eta kaleak animatu eta dantza ikuskizun ederrak eskaini zituzten: "Giro polita egon zen, eta kalitatezko dantza taldeak dire-



Ibarretik etorritako dantzariak ikuskizun ederra eskaini zuten herriko kaleetan. Argazkian, Bergarako Xamatx taldea.

la erakutsi ziguten".

Eskoriatzan dantza taldea sortzeko asmorik badaukaten galde-tu genionean, zera esan zigan: "Bai, umeen dantza taldea osatu


gura dugu. Dagoeneko badugu irakaslea; hortaz, ahalegin guztiak egingo ditugu taldea osatzeko, herriko umeei euskal dantzak ikas ditzaten. Musika Eskolatik

bultzatzeko asmoa daukagu, eta egingo dugulakoan gaude. Eta nagusien taldea? Aurrerago, agian... ikusi egin behar", esan digu, ilusioz, Mainerrek.

"Giro polita jarri zuten herrian, eta kalitatezko dantza taldeak direla erakutsi ziguten"

"Umeen dantza taldea sortu gura dugu herrian, eta dagoeneko badugu irakaslea"

"Taldea Musika Eskolatik bultzatzeko asmoa daukagu, eta egingo dugulakoan gaude"



'Hazia erein zenutenoi' erakusketa

Hilaren 14an inauguratu zuten *Hazia erein zenutenoi* izeneko erakusketa. Espainiako gerran hildakoen eta fusilatutakoen gainekoa da erakusketa: 100 argazki inguru eta lekukotasunak batzen ditu kultura etxean datorren apirilaren 28 arte egongo den erakusketak. Gerran hildakoen senitartekoei antolatu duten erakusketak ibarreko udalen laguntza du, eta herriz herri ibiliko da -Leintz Gatzagan eta Elgetan izan ezik-, herritarrei garai hartan gertatutakoak jakinarazteko. /A.G.

LABUR

Udaletxe berria apirilaren 30ean inauguratuko dute

Apirilaren 30ean inauguratuko dute azken hilabeteotan zaharberritzen ibili diren udaletxea. Inaugurazio ekitaldia 18:30ean egingo dute. Ekitaldi horretan, udaletxe berria inauguratzeaz gainera, Udalaren irudi korporatibo berria ere aurkeztuko dute. Apirilaren 29an eta 30ean, bestalde, Udal Zerbitzuak itxita egongo dira, udaletxe zaharretik berrira eraman beharrekoak eramateko. Udaletxe berriaren inaugurazio ekitaldira herritar guztiak daude gonbidatuta.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

AITZORROTZ EGUNA

Maiatzaren 4an Aitzorrotz egunean, 11:30ean esango da meza Aitzorrotzeko ermitan. Ondoren, trikitilariak eta bertsolariak -Sustrai Colina eta Amets Arzallus- izango dira. Eguraldi ona eginez gero, herri bazkaria egingo dute Aitzorrotzen. Bazkari-rako txartelak salgai egongo dira Mirentxu eta Urrestilla tabernetan.

MIKEL URDANGARINEN KANTALDIA

Axtroki Euskara Elkartek antolatuta, Mikel Urdangarinek kantaldia eskainiko du maiatzaren 9an kiroldegian, 22:30ean.

AXTROKIRENAGENDA

BATZAR OROKORRA

Datorren maiatzaren 15ean, oraindik lekua eta ordua zehaztu ez badigute ere, urteko Batzar Orokorra egingo du Axtrokik. Bazkide guztiak gonbidatu gura ditu txoko honetatik.

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

Eskoriatzarrek bake-bidea egin zuten Aste Santua hasi baino lehenago

AMAGOIA LASAGABASTER

Urtero moduan, Garizuma amaitzeko, Arantzazurako erromesaldia egin zuten Gipuzkoa osoko elizbarrutiko hainbat lagunek joan den zapatuan, hilaren 12an. Eskoriatzar ugarik hartu zuten parte bake-bidea izeneko ekitaldi horretan. Aurten, hain justu ere, elizbarrutiak antolatutako autobusean 32 herritar joan ziren Oñatira. Gero, handik, ia 10.000 lagun eta Gipuzkoako Gotzain Juan Mari Uriarteren laguntzarekin, Arantzazurainoko bidea egin zuten.

Garizuma amaierak Aste Santuaren hasiera markatzen du, eta Eskoriatzako parrokiak gertu ditu dagoeneko Jesusen heriotza eta piztuera ospatzeko elizkizunak.

Bihar, Ostegun Santua, 11:00etatik 12:00etara aitortzak egingo dituzte parrokiak; 17:00etan, bestalde, Apotzaga auzoan atariko meza esango du parrokoak; eta 18:00etan gauza bera egingo du parrokiak. Eguneko azkeneko

Parrokiak gertu ditu Aste Santuan Jesusen heriotza eta piztuera ospatzeko elizkizunak

ospakizuna Ordu Santua izango da eta 22:00etan egingo dute.

Egubakoitz Santuan, bestalde, 11:00etan Gurutz Bidea egingo dute; gero, 17:00etan Jaunaren Nekaldiko ospakizunak egingo dituzte; eta 22:00etan gurutzearen inguruan otoitzaldia egingo dute.

Zapatu Santuan Pazko Gau-beila eta festa egingo dute.

Azkenik, Pazko Domekan, 08:30ean meza esango du parrokoak zaharren egoitzan; 11:00etan Pazko meza egingo du Apotzagan; eta 12:00etan Eukaristia eta Bataio ospakizunak egingo dituzte.




Jende ugari hartu zuten parte Arantzazuko Santutegirainoko bake-bidean.



Gazta, taloa eta otarrak egiten ikasi dute

Arizmendiko lehen mailako umeak Nafarroa aldean egon ziren, Lesakan. Egun biko egonaldia egin zuten han. Ikasturtean ikastolan landutako hainbat gai bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten. Hala, Basaburuko Dorrea gaztandegian gazta zelan egiten den ikusi, eta umeek gazta bana egin zuten. Taloa eta otarrak zelan egiten diren ere ikasi zuten. Baina dena ez zen lana izan, jolastu eta leku ugari bisitatzeko aukera izan zuten-eta: Egilazko trikuharria eta Lesakako txoko ugari, besteak beste. Egindako gaztak hilabete bi barru ikastolan jaso eta etxean dastatuko dituzte.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurriera eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA



Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

Alkateak deitutako herri batzarrean oso jende gutxi

AINTZANE GARDOKI

Udal hauteskundeak gertu daudela-eta, joan den apirilaren 8an herri batzarrean deitu zituen herritarrek Leintz Gatzagako alkate Joxerra Agirreurretak, egoera zein den azaltzeko. Herritar gutxi, oso gutxi, erantzun zioten alkatearen deialdiari.

Zortzi lagun egon ziren alkateak deitutako herri batzarrean: "Maiztean egingo diren udal hauteskundeetarako herrian bizi den

egoera zein den azaltzea nuen helburu", esan digu Joxerrak. "Udalbatza osatu dugunok -Iñaki San Pedro zinegotziak izan ezik- esan genuen beste zinegotziok agintaldia amaitzean ez genuela aurrera jarraituko. Hainbat elkarterekin batu gara, egoera azaldu eta herritarren batzuk udalbatza berriari heltzeko gertu dauden jakiteko, baina ez dugu inolako erantzunik jaso", gaineratu du Joxerrak. Joxerrari herri batzarrean izandako erantzun eskasaz galdetu diogunean, tristuraz erantzun digu: "Gurean bakarrik ez, alde guztie-

tako kontua da; nire iritziz, jendea ez dago konpromisoak hartzeko".

Iñaki San Pedro, berriz, gertu dago datorren agintaldian Udalean jarraitzeko: "Ez dakit ezer lortuko dugun. Udalean lan egiteko gertu dauden beste lau lagun aurkitzea oso gaitz ikusten dut. Banabil batengana jo eta bestearengana jo, baina ez dut erantzunik jasozten. Herrian daukagun egora ez da batere baikorra". Dena dela, hauteskundeetarako hilabete eskas falta da, eta irtenbidea aurkitu beharraz jardun dute bataak zein besteak.



Udal hauteskundeetarako hilabete eskas falta da, eta herritarren artean ez da oraindik hautagairik aurkeztu.



Urtebetetze ospakizuna kalean

Urtarrilaren 11n Garro jauregia erre zenean Toki Eder elkar-teak kalte handiak izan zituela esatea ez da gauza berria. Geroztik, ordura arte herriko umeek elkartean egiten zituzten urtebetetze ospakizunak elkartean ezin egin eta, beste hainbat lekutan egin behar izan dituzte; Gaztainuzketan, Arraten, etxean... Joan den astean Itzal Zubillagak urteak betetzen zituela-eta, eguraldia lagun izan zuenez, ospakizun festa kalean egin zuten. Umeak pozik ibili ziren, jateko goxoez gainera, leku handiagoa izan zuten-eta jolaserako.

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingerugardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA

NAIRA
Taberna


Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineneko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



Udaberriak 10 sari utziko ditu Aretxabaletan.
Informa zaituz Aretxarteko dendetan!

Aitzorrotz elektronikak
Alboka gazte moda
Ana's jantzi denda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika

Calderon Soledad autozerbitz.
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Farma bizi parafarmazia
Gantxegi harategia

Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda

Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
Kixkur ileapaindegia
L-10 ileapaindegia
La Brasileña akeita etxea

Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz mertzeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda

Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Txilarra dietetika
Xume oihal denda
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure etxearen osasun onerako



RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA
"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

Gas • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza

PINTURAS
ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza



Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gas • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araña ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94

URKO
MANTENIMIENTO, S.L.



Instalazioen mantenumendu osoa
Berokuntza • Gas
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Dintura eta dekorazioa

Simbert



San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

MUSAKOLA
Pinturak



Durana 27, 3. solairua
ARETXABALETA
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

J.J. ITURGINTZA
IRURE



URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA
943 793 187